

2009-07-17

GERRA ZIBILA SAIZARBITORIAREN *BIHOTZ BI-N*: LITERALITASUNA, METAFORA ETA BESTE ZENBAIT HIPOTESI"

UR APALATEGI

Gauza jakina da Ramon Saizarbitoriaren bigarren idazle aldiaren gerra zibilaren oroimena behin baino gehiagotan agertzen dela. Ez da baina euskal historiaren aipamen isolatua autorearen obran gerra zibilarena. Komeni litzateke, lehenik, jakitea aipamen honek berezitasunik ba ote duen, gure iragan kolektiboaren beste agerpenekin alderatuta. Horretarako, Hanbre tabernako zahartxoaren eta berauen istorioen azterketa bat burutu beharko dugu. Eta, bigarrenik zehaztu beharko litzateke modazkoa bihurtu den topos historiko honen zer-nolako erabilpena egiten den Bihotz bi. Gerrako kronikak (1996) obran. Komentzituak baikaude galdera honi erantzuteak lagunduko digula Saizarbitoriaren xede literarioa hobeto ulertzen, baita bere azken aldiko eleberrigintzaren poetika inplizitua agertarazten. Ohartuko gara, erabilpen hauek aztertu ahala, interpretazio anitzeko euskarria dela gerra zibila eleberri honetan.

Bibliografia

Saizarbitoria, Ramon, Bihotz bi. Gerrako kronikak, 1996, Erein
Saizarbitoria, Ramon, Gorde nazazu lurpean, 2000, Erein